

NAZIOARTEKO HARREMANAK

1- Nazioarteko Harremanen sarrera: pentsamendu korronteak eta teoriak.

2- Estatu eta Estatu sistema.

3- Nazioarteko Gobernuarteko erakundeak: Nazio Batuak.

4 eta 5- Gobernuz kanpoko erakundeak eta multinazionalak.

6- Boterea eta ordena mundu anarkikoan: oreka, hegemonia eta polaritatea.

7- Diplomaziaren teoria eta praktika.

8- Indarkeriazko gatazkak: ohiko gerratik terrorismora.

9- Segurtasun kolektiboa.

1. GAIA: Nazioarteko harremanen sarrera: pentsamendu korronteak eta teoriak.

1.1. NNHH diziplina akademikoak:

- Gizateriak aurrera eramaten dituen ekintzen artean badago bat historian zehar etengabe errepikatu dena: gerra.
- Nazioarteko Harremanak diziplina akademiko gaztea dugu, XX. Mendearen hasieran sortu zen bi helburu nagusi zituela:
 1. Gerrak sortzen zituten faktoreak/arrazoiak aztertu
 2. Gerrak saihesteko beharrezko baliabideak
- XX. mendera arte gerraren fenomenoaz aztertu ez dela esan nahi du? Ez!
- Aurretik beste diziplina akademikoak arduratu dira gerra fenomenoaren ikasketaz: Nazioarteko Zuzenbide Publikoa eta Nazioarteko Historia.
- Ikuspegi orokorragoa izan nahi dute NNHHak, ez juridikoa soilik, ezta historikoa edota estatuaren eremuan oinarrituta soilik.
- DEFINIZIO BAT: Nazio maila duten unitate politikoaren arteko harremanak aztertzen dituen zientzia politikoaren adarra, batez ere nazioarteko politikaz arduratzen da.
- Definizio honek hainbat eskasia:
 1. Hainbat aktore kanpoan utzi
 2. Globalizazioaren ondorioz “barne” eta “kanpo” eremuen arteko desberdintasuna ez da jada oso argia.
 3. NNHH Zientzia Politikoaren adarra da baina ikuspegi ekonomikoak, sozialak, juridikoak etab. hartzen ditu ere.
- NNHH-ak definitzerakoan “nazioarteko” terminoaren izaera eta eskasiak kontutan hartu behar dira.

1.2. Nazioarteko Harremanen helburua:

1. Ez da nazioarteko gertakizunen segida historikoa kontatzea.
 2. Teoriak edo esparru-kontzeptuak sortzea eta erabiltzea da. Teoria hauek, nazioarteko sisteman ematen diren jokabideak ulertzen laguntze dute.
- NNHH 3 interakzio motaz arduratzen dira:
 1. Estatuaren arteko harremanaz.

2. Estatu-harremanak ez direnaz, transnazionalak deritzogunak eta mugen gainetik ematen direnak.
 3. Sistemaren funtzionamenduaz, eta sistema honen osagaiak Estatuak eta gizarteak dira.
- Hiru interakzio hauek aztertzeko ikuspegi desberdinak erabiltzen ditugu ere (politikoa, ekonomikoa, juridikoa, soziologikoa, antropologikoa,...) eta bi zentzu desberdinetan:
 1. **Analitikoa:** Estatuaren jardura, boterea eta segurtasuna, ekonomia eta indar militarren arteko interakzioak, gatazkak, elkarkidetzaren prozesuak,...
 2. **Normatiboa:** Noiz eta ze baldintzapean bidezkoa da indarraren erabilera, hau da, moralak n.h.h.tan izan behar duen lekua argitzen saiatzen da.
 - Nazioarteko Harremanak nazioarteko gizartean ematen diren harreman multzoen ikasketaz arduratzen da. → “Komunitate bateko gizaki eta giza taldeek beste komunitateetako gizaki eta giza taldeekin mantentzen dituzten harreman sozial transnazionalak izango dira, sarri askotan komunitate horiek estatuak dira” (Truyol,)
 - Kokapena: komunitateak aipatzen ditu eta ez estatuak.
 - Inplikaturako aktoreak: gizakia erdian jartzen du, aktoreen aniztasuna azpimarratzen duelako.

1.3. Barne eta kanpo politikaren arteko desberdintasuna. Estatu-politika vs.

Nazioarteko politika:

- **Barne politika** estatu baten mugen barneko aginte desberdinek Aurrera eramaten dituzten ekimenak dira.
- Hartzaileak **estatuko biztanleak** dira.
- Estatu politikaren ezaugarriak:
 - Gobernua egon behar da.
 - Boterea zentralizatuta dago.
 - Indarraren monopolioa.
- **Kanpo politika** estatuak nazioarte mailan Aurrera eramaten dituen harremanen bideratze-prozesuaz arduratzen da.
 - Ez dago aginte zentralik.
 - Boterearen deszentralizazioa
 - Indarraren erabileraren errekurtso “legitimoa”.
- Politika honen hartzaileak **nazioarteko aktoreak** dira (estatuak, nazioarteko erakundeak...)
- Estatuaren politika orokorraren atala da kanpo politika.
- Beronen erabakiak eta jokabideak bestelako aktoreekin harremanak, sortzeko, aldatzeko edo mozteko erabiltzen dira.

Estatu barnean	Nazioartean
Bakea eta ordena	Gerra
Biolentzia baliabideen gaineko monopolioa	Biolentzia baliabideak deszentralizatuak
Hierarkia	Anarkia
Justizia	Boterea
Komunitatea	Lagunak eta etsaiak
Legezko aginpidea	Autolaguntza
Segurtasuna	Segurtasuna eta segurtasun gabeziaren

	arteko dilema
--	---------------

- Estatu-kanpo politika \neq gobernu-kanpo politika. Gobernuaz gain beste erakunde (autonomiak, udalak)
- Kanpo politika prozesua da eta ez soilik gauzatzea (azken hau prozesuaren fase bat baino ezta).
- Kanpo politika \neq ekintza diplomatikoa edota ekintza armatua. Zabalagoa da.
- Kanpo politika eta barne politika elkarrekiko eragina dute, gero eta gehiago globalizazioaren ondorioz.
- Helburuak zehaztu behar dira, eta horiek lortzeko, baliabideak kontutan hartu behar dira ere.
- Estadioak: lantzea, ejekuzioa eta kontrola.

Nazioarteko politika vs. Mundu-politika

- Nazioarteko Harremanak sarritan harreman politiko soilak bezela aurkezten dira, hau da, Estatuen arteko harremanak bezela. Kasu honetan Nazioarteko politikaz mintzo gara nazioarteko harremanaz baino.
- Nazioarteko politikak estatuek mantentzen dituzten harreman diplomatikoez eta gerraz arduratzen da.
- Autore askok nazioarteko harremanak mundu-politika terminoarekin elkartzen dute “nazioarteko politika”-rekin baino.
- Ikasketa objektuari dagokionez, Estatuez gain bestelako aktoreak kontutan hartu behar ditugu: nazioarteko erakundeak, multinazionalak, GKE, talde armatuak,...
- Aztertzen dituen prozesuei dagokionez, diplomazia eta gerraz gain, integrazio ekonomikoa, globalizazioa, erlijio adierazpenak... aztertzen ditu ere.

1.4. Pentsamendu korrante nagusiak

- Bi dira pentsamendu korrante teoriko nagusienak Nazioarteko Harremanetan:
 - **Korrante positibistak:** Mundua den moduan aztertzen dute, naturaren arauak egokiak dira nn.hh.ak azaltzeko. Baloreak alde batera uzten

dituzte errealitatearen deskribapen objetiboa egiteko.

- **Korrante postpositibistak:** Aurrekoei oposaturik gizarte zientzietan azterketak egiterakoan baloreak ezinbestekoak direla aldarrikatzen dute. Etikaren garrantzia azpimarratzen dute ere: baloreak.
- Positibistak *Mainstream* (korrante nagusia) dira teoriaren alorrean. Korrante bi:
 - Neorrealismoa
 - Neoliberalismo instituzionala
- Postpositibistak NN.HH-en berregituraketa Talde heterogeneoa
 - Konstruktibismoa
 - Teoria kritikoa
 - Teoria feministak
 - Postmodernismoa
 - Postkolonialismoa

Segurtasun dilema:

- Poliziak pertsona bi atxilotzen ditu (A eta B presoak) droga poltsikoan dutela.
- Trafikanteak direla uste du poliziak baina ez du behar beste froga.
- Espetxeratzen ditu eta bertan poliziak egoera honi irtenbidea aurkitu nahi dio.

		A PRESOA	
		Kooperatu	Salatu
B PRESOA	Kooperatu	Bakoitzak urte bete emango du espetxean	▲ libre, ■ 25 urte gartzelan
	Salatu	▲ 25 urte gartzelan ■ libre	Blak 10 urte espetxean

→ **Errealismoarentzat** nola amaitzen da jokoak? Bi presoak elkar salatu → 10 urte gehio kartzelan bakoitzak.

Segurtasun dilema nazioarteko jokabidearen logikaren erdian dago.

- Estatuak ez dute gatazka bilatzen, bakea nahi dute (jokoan aukera onena: libre ateratzea) baina...
- Estatuak ez dira ziur beste estatuak bakea edo gerra (jokoan salatu) aukeratuko duten.
- Armatu behar dira, gerrarako prestatu (elkarri salatu) harien burujabetasuna babestu eta bizirik iraun (10 urte preso bakoitzarentzat)

Segurtasun dilema

- Subiranotasunak Estatuak ingurune anarkikoan murgildurik daudela adierazten digu.
- Estatu-sistemak eta izaera anarkikoak arazo bat planteatzen du: Estatuaren segurtasuna elkar baztertzailak dira.
- Estatuak haien lurraldea basbesteko prestatzen direnean, gainontzeko Estatuak mehatxu bezela hartu dezakete, plan ofentsiboa bezela.

→ Idealismo/liberalismoaren ikuspegitik: jokoaren emaitza → bi presoak isilik → urte bete espetxean bakoitza:

- Errealismoaren segurtasun dilema hobetu daiteke komunikazioaren bidez (espetxeko patioan bildu dira)
- Diplomaziak, nazioarteko erakundeetan parte hartzea eta elkartruke ekonomikoak ziurgabetasuna gutxitzen dute.
- Estatuak kooperatzen dute haien interesak lortzeko (jokoan, justiziarri iruzur egin).
- Kooperatzen gehiago irabazten dute (urtebete baino ez dira espetxean egongo).

→ Konstruktibisten ikuspegitik: jokoaren emaitza → bi presoak isilik mantendu → bakoitza urtebete kartzelan:

- Estatu guztiek ez dituzte identitate antagonikoak, antagonismoak elkarrekin borrokatzera eramaten ditu (jokoan salatu)
- Estatu batzuk identitateak partekatzen dituzte (mafia-kideak): Elkar ezagutzen dute, arauak partekatzen dituzte (arau onak zein txarrak).
- Ez dute komunikazioaren beharrik kooperatzeko (elkarri ez salatzeke): kooperazioa ziurtatuta dago jokoan hasi baino lehen.
- Kooperazioa ez da interesatua, identitatea partekatzen dutelako kooperatzen dute (Gu=mafiosoak Haiek=Poliziak).

2. Gaia: Estatu eta Estatu Sistema

2.1. Estatu modernoaren eta subiranotasunaren agerpena

2.1.1. Feudalismoa European

- Erregeek etzuten gobernatzen, Jainkozko grazia, Elizaren eragina.
- Aginte publikoa esku pribatuetan zegoen.
- Jauntxoek lurraldeak kontrolatzen zituzten, jabego pribatua. Epailleak ziren, administratzaile, zergari, buru militarra,...

Miren Mujika Telleria

- Jauntxo batzuek erregea baino botere gehiago zuten.
- Boterearen zatiketa eta deszentralizazioa. • Aginte hierarkikoa basailutzan eta morrontzan oinarritzen zen.

2.1.2. Elizaren boterea Europan

- Botere zentralizatua, Erroman.
- Aginteak legitimatzen zituen (Jainkozko grazia).
- Europa osoko lurren herena kontrolatzen zuen Elizak.
- Ez zuen zergarik ordaindu behar.
- Aita Santuak botere gorena ordezkatzeko zuen eta erregeak botere horren menpean zeuden.
- Westfaliako Bake Ituna 1648an 30 Urteko gerrari amaiera eta Estatu modernoaren agerpena.
- Estatu-nazioa Mendebaldean sortzen den eraikuntza historikoa dugu.
- Elizak eta Enperadoreek zituzten lurralde gatazkak konpondu nahi zituen.
- Boterearen sekularizazioa eta kontzentrazioa ematen da (zentralismoa).
- Estatuarekin batera burujabetza agertzen da. Kontzeptuak dira, abstrakzioak.
- Subiranotasun kontzeptuak lurralde zehatz baten gaineko kontrol eskubidea adierazten digu.
- Hizkera arruntean herrialde, nazioa eta estatua berbak esanahi berdinarekin erabiltzen ditugu, baina ez da horrela:
 - **Herrialdea:** eremu geografikoari dagokio
 - **Nazioa:** ohitura, jatorri, nortasuna eta historia berdina partekatzen duen giza- komunitateari dagokio.
 - **Estatua:** Lurralde zehatz baten gainean subirotasuna duen erakunde politikoa.

2.1.3. Estatu subiranoa

- Mugak zehaztuak dituen lurraldea da.
- Biztanleriak, nortasuna parteka dezake edo ez.
- Erakundeak, barne administrazioa, gobernua.

Miren Mujika Telleria

- Elkarrekiko onarpen diplomatikoa.
- Subiranotasuna.
- Hitzarmenak sinatzen dituzte beste Estatuekin.
- Beste estatuen barne politikan ez dira sartzen [?].
- Mugen gaineko kontrol zorrotza.
- Estatuaren eraikuntzan arreta.

2.1.4. Westfaliako ordena

- Estatuez osatutako sistema, anarkikoa da aginte zentralik ez dagoelako.
- Aktoreak independenteak (subiranoak) dira.
- Mugen barnean arauak ezartzeko bakarrak (inor gainetik -ezta eliza).
- Subiranotasunak, lurralde zehatz baten gaineko eskubide eskusiboen jarduna adierazten digu.

2.2. Estatu-sistemaren hedapena

- Europa mendebaldeko lurraldeak estatuetan antolatzen hasten ziren bitartean.
- Itsasoz bestaldeko lurraldeak bereganatzeari ekin zioten Europako Inperioek.
- Kolonialismoaren hedapena.
- Kolonia, atzerriko gobernu batek kudeatzen duen lurraldea da.
- Erabakiak hartzeko autonomiarik ez du nahiz eta ordezkariak izan atzerriko gobernuan (gobernu horren menpean dago kolonia).
- Itsasoz bestaldeko lurraldeen kontrola era desberdinetan eraman zuten aurrera europako potentziek:
 - **Osoa (kolonia):** Atzerriko gobernua lurralde horren subiranoa zen.
 - **Partziala:** Potentziak subiranotasun partziala du, lurraldeko agintea onartu ta horren kanpo harremanaz eta defentsaz arduratzen da (protektoratua)
 - **Enpresek** kudeatutakoa Indian eta Kongon egin zuten moduan (ez da ohizkoa izan).
- Independentzia lortu zutenean estatu subirano independenteetan bihurtu ziren.
- Amerikako Estatu Batuek 1776an lortu zuten independentzia.

2.3. Estatua, definizioa eta ezaugarriak

- Lurralde geografiko zehatz bat menperatzeko agintea duen elkarte politikoa da Estatua. Erakundeak eta arauak sortzen ditu lurralde horretan bizi den biztanleria gobernatzeko.
- Soziologiaren ikuspuntutik, estatua lurralde zehatz batean indarraren erabileraren monopolioa duen instituzioa da. Armada, administrazio publikoa, auzitegiak eta polizia sortzen ditu.
 - Estatu modernoak osatzen duten oinarriko elementuak hiru dira:
 - **Biztanleria:** homogenea edo heterogeneoa izan daiteke. Kopuruak ere garrantzia du (armada, merkaturak).
 - **Lurraldea:** hedapena, lurraldearen kokapena eta konfigurazioa.
 - **Gobernua:** antolatze politiko- administratiboari dagokio (sistema parlamentarioa, presidentzialista,...).

Estatuen Eskubide eta Betebeharren Hitzarmena, Montevideo 1933.

Hitzarmenak Estatuaren definizioa ezartzen du eta Estatuaren eskubideak eta bete beharrak zehazten ditu ere 16 artikulutan.

→ **Artículo 3.**—*La existencia política del Estado es independiente de su reconocimiento por los demás Estados. Aun antes de reconocido el Estado tiene el derecho de defender su integridad e independencia, proveer a su conservación y prosperidad y, por consiguiente, de organizarse como mejor lo entendiere, legislar sobre sus intereses, administrar sus servicios y determinar la jurisdicción y competencia de sus tribunales.*

- Printzipio honi Estatuaren adierazpen teoria deritzogu. Independentziaren aldarrikapenak berak Estatuaren existentzia politikoa adierazten du.

- Estatuak berak zentzu enpirikoa eta juridikoa du, *de facto* edota *de jure* izan daitezke:

1. Enpirikoa (de facto). Biolentziaren monopolio legitimoa du nahiz eta bestelako estatuak beronen independentzia onartu ez (Somaliland-en kasua).

2. Juridikoa (de jure). Nazioarteko zuzenbidean erakunde bat estatuak da gainontzeko estatuak onartzen dutenean. Nazioarteko erakundeetan sartzeko baldintza da.

- 193 estatuak nazioarteko onarpen orokorra dute.

- ✓ 193 Nazio Batuen kide dira.

- ✓ 2 begiraleak dira, estatu Batikanoa.

- ✓ Palestina Estatu begiralea 2012/11/29.

- 10 estatuak ez dute nazioarteko onarpen orokorra nahiz eta *de facto* estatu independenteak izan.

- ✓ Txinako Errepublika (Taiwan) 22+Batikanoa.

- ✓ Sahrawi Arab Dem. Rep. 85 bat estatuak onartzen dute.

- ✓ Ipar Txipreko Turkiar Errepublika, Turkiak baino ez.

1. Kosovok 2008/2/17 independentzia onartu. 109 estatuak onartu diote independentzia. Ez du NB-n eskaerarik aurkeztu. Kosovoren onarpen diplomatikoak estatuaren barne politikari erantzun dio sarritan.

- ✓ Abkhazia eta Hego Ossetia (Georgia) 2008/8/28 Errusiak independentzia onartu die (Venezuela, Nikaragua eta Nauru). Errusiarengandik dependienteak dira.

- ✓ Karabakh Garaia (Azerbaijan), Transnistria (Moldavia) eta Somaliland (Somalia) inorengandik onartuak. Halaz ere, Frantziak Somaliland-eko gobernuarekin negoziatu itsas-piratak bertako gartzeletan sartzeko.

- ✓ Ambazonia, Camerun hegoaldeko bi erregioek 2017ko urriaren 1ean

independentzia aldarrikatu zuten. Nazioarteko onarpen barik.

- Estatu subiranoen arteko harremanak mugatzen dituen araudiak Nazio Batuen Kartan agertzen diren printzipioetan oinarritzen da.
 - **Berdintasunaren printzipioa: (2.1 art.)** Nazio Batuen Asanblada Orokorrean gauzatzen da “estatu bat, botu bat”.
 - **Ez-esku hartze, ez-injerentziaren printzipioa (2.7 art.)** printzipio hau subiranotasunaren ondorioa da.
 - **Indarra ez erabiltzearen printzipioa (2.4 art.)** estatu batek beste baten lurralde-segurtasuna edo independentzia politikoa mehatxatu edo indar armatuaren erabilera ekiditzea da. Horrela, gerra debekatzen da bidezko defentsarako kasuetan izan ezik (51.art.)

2.4. Estatuaren arteko asimetriak

- Zentzu juridikoan estatuak berdinak badira ere, izatez ez da horrela.
- Adina: Orohar, pobrezia, azpiegitura falta, baliabideen beharra.
- Lurraldea: 8 estatuak munduaren lurraldearen %50a hartzen dute (Errusia, Kanada, Txina, AEB, Brasil, Australia, India eta Argentina).
- Bestetik, 48 estatuak 1000Km² baino gitxiagoko azalera dute.
- Biztanleria: Txinak 1.400 milioi biztanle inguru ditu, munduaren %20a. 6 estatuak munduko populazioaren %50a dute.

Txina.....	1415
India	1354
AEB.....	326
Indonesia.....	266
Brasil.....	210
Pakistan.....	200
Guztira.....	3771
Munduan.....	7500

- Estatuak sailkatzerakoan hainbat aldagai erabili dezakegu:

Tamaina militarren arabera. Estatu nuklearrak, itsas indarra, aire indarra, gastu militarra,...

Tamaina ekonomikoaren arabera. BPGaren arabera, G8, EGEE (OCDE), EB

- Aldagai guzti hauek, eta beste batzuk ere, estatuaren arteko asimetriak adierazteko erabiltzen ditugu.

- 1990. urteaz geroztik, Nazio Batuen Garapenerako Programak urtero-urtero Giza-Garapenaren Adierazlea argitaratzen du.
- Adierazleak ekonomia, hezkuntza, osasuna eta bestelako ohizko aldagaien bateraketa egiten du.
- Gaur egun adierazle hau estatuen arteko sailkapenaren estandar bilakatu da.
 1. Bizitza-luzera, itxaropenaren arabera neurtzen dena.
 2. Ezagupen maila, helduen alfabetaze eta eskolatzeko-urteen konbinaketaren ondorioz neurtzen dena.
 3. Bizitza-maila, erosteko ahalmena eta bizitza kostearen arabera neurtzen dena (bizitza kostea herri bakoitzean)...

3. Gaia: Nazioarteko Gobernuarteko erakundeak: Nazio Batuak.

3.1. Sarrera

- Nazioarteko sistema? Estatuarteko sistemaz ari gara soilik.
- Izaera juridikoan oinarritzen bagara bai.
- NNHHtan aktore izaera influentzia mailan neurtzen dugu
- Nazioarteko aktorea da bere helburuak lortzeko errekurtsoak erabili ditzakeen nazioarteko sistemaren unitatea –entitatea, taldea edota gizabanakoa-
- Estatua
- Definizio hoi ez da bateratua aktoreen aniztasuna azpimarratu nahi izan dugulako.
- Transnazionalisten sailkapenean Estatuak eta lurraldetasunak garrantzia galdu.

• Bi nazioarteko aktore mota:

- Marcel: nazioarteko aktorea funtzio bat bete dezakeen edozein agintari, erakunde, talde edota pertsona izango da.
- Mansbach: transnazionalistak. Hauen sailkapena:

→

- **EGA** (Estatuarteko Gobernu-aktoreak edo Gobernuarteko Erakundeak) **AGI** (Actores Gubernamentales Interestatales u Organizaciones Intergubernamentales); **OEA** edota **UNESCO** honen adibide argiak dira.

- **EAEG** (Estatuarteko Aktoreak Ez-Gobernukoak) **ANGI** (Actores No Gubernamentales Interestatales); Estatuak ordezkatzan EZ dituzten erakundeak edo gizabanakoak liriateke. Honen adibideak Gobernu Kanpoko Erakundeak GKE eta multinazionalak (Amnesty International eta IBM, Shell).

- **ESTATUA**; Estatu subiranoa eta beronen gobernu zentrala.

- **GAEZ** (Gobernu-Aktoreak Ez Zentralak) **AGNC** (Actores Gubernamentales no Centrales); Gobernu lokalei dagokiena (munizipalak eta erregionalak). Honek aktoreen zerrenda izugarri zabaltzen du eta bide batez eztabaida handia ere, estatu espainolaren kasuan bezala, autonomien inguruan.

- **EBAEG** (Estatu Barneko Aktoreak Ez Gobernukoak) **AING** (Actores Intraestatales No Gubernamentales); Nazio mailako talde pribatuak izango liriateke (alderdi politikoak, sindikatuak, interes ekonomikoko taldeak, etab.). Hauek, harreman zuzenak izaten dituzte nazioarteko aktoreekin eta euren gobernuak kontutan hartu gabe. Adibidez PSOE, PP, Suediar Akademia, ELA.

Aktoreen arteko interakzioak Mansbach-en ikuspegitik

Aktore mota	EGA (AGI)	EAEG (ANGI)	Estatua	GAEZ (AGNC)	EBAEG (AING)	Gizabanakoa
EGA (AGI)	ASEAN EB	Nazioarteko Amnistia NBE (Ecosoc)	Errusia OTAN	Alemaniako Lander E Batzardea	UGT LNE (OIT)	Pau Cassals NBE
EAEG (ANGI)		Bayer Munduko Medikatuak	Frantzia Greenpeace	Bartzelonako Udala COI	CD (Txile) ITT	Sting Nazioarteko Amnistia
Estatua			Ruba Espainia	Quebec Frantzia	PAE (OLP) Tunisia	Jimmy Carter Nikaragua
GAEZ (AGNC)				Euskadi Akitania	ERO (COE) Jaca-ko Ud.	Vaclav Havel Premio Int. Cat.
EBAEG (AING)					PSOE SPD	Garcia Marquez Suediako Akad.
Gizabanakoa						Bertrand Russel Albert Einstein

- Gizabanakoa; Hauek duten prestigioagatik funtzio bat betetzen dute (bakearen alde, giza eskubideen alde). Kasu honetan, zientzilari, politikari edota artistak izango genituzke, hala nola, Bertrand Russel, Pères Esquivel, Pau Cassals, Bono, etab.

3.2. Nazioarteko erakundeak

- Hasierako bereizketa bat
 - Estatuak sortzen dituztenak (gobernuarteko erakundeak)
 - Ekimen pribatuaren ondorioz sortu (GKE gobernuaz kanpoko erakundeak)
- **Gobernuarteko erakundeak:** hiru estatu edo gehiago nazioarteko itunen bidez aortzen dituzten elkartak. Hauek, euren helburuak lortzeko egitura instituzionala dute, erakunde iraunkorrek eta estatuengandik independenteak dira.
- **Ezaugarriak:**
 - Estatu artekotasuna
 - Egitura organaiko iraunkorra
 - Eraginkortasuna
 - Relebantzia juridikoa
 - Estatuengandik autonomoak
- **Sailkapena:**
 - **Hedapen eta osaketaren arabera:**
 - **Erakunde unibertsalak:** estatuen parte hartzea ahalbidetu
 - **Erakunde erregionalak:** estatu kopuru murriztu batek osatu (geografia eta funtzioen arabera)
 - **Helburu eta funtzioen arabera:**
 - Helburu orokorrak dituztenak, erakunde funtzionalak: NBE
 - Helburu bereziak dituztenak, funtzio konkretua betetzen dituztenak dira (Nazio Batuen hainbat erakunde espezializatuak, OMS, Organización meteorológica mundial, CECA, OPEP, Mercosur)

- **4 helburu:** ekonomikoak, militarrek (segurtasuna barne), sozialak.

	Erakunde unibertsalak	Erakunde erregionalak
Helburu orokorra	NBE	OEA (AEE) Oua (ABE)
Helburu ekonomikoa	UNESCO OIT (LME)	Mercosur UMA (UMA)
Helburu soziala	NBE (segurtasun kontseilua)	Consejo nordico OCI (IKE)
Helburu militarra	NBE (segurtasun kontseilua)	UEO (MEB) SEATO (AHHE)
Helburu tekniko zientifikoa	OMM (MEE) OMI (NIE)	CERN (INEG) ESA (EEA)

- Nazio Batuen Erakundea: aitzindarik eta agerpena
 - Estatuaren sistema arautzeko bigarren saiakera
 - Aitzindariak Hagako Bake Konferentziak (1899 eta 1907) eta Nazioen Elkartearen ditugu.
 - Nazioen Elkartearen helburuak:
 - Gerra ez egitearen konpromezua
 - Diplomazia sekretua baztertu nahi
 - Nazioarteko zuzenbidean errespetua
 - Estatuaren arteko elkarkidetzaren sustapena bakea eta segurtasuna lortzeko bidea
- Bakearen bermea segurtasun kolektiboaren bidez eta bakearen eraikuntza elkarkidetzaren bidez.
- Huts egitearen arrazoiak:
 - Potentzia garrantzitsuak kanpoan geratu ziren (AEB, SESB,...)
 - Arbitraje eta bitartekaritza mekanismoek huts egin zuten.
 - Baliabide ekonomiko eta tekniko urriak izan zituen
 - 1935etik aurrera sistema politiko totalitarioak Europan
 - Bigarren Mundu Gerraren hasiera.
- Nazioen Elkartearen ekarpen aipagarrienak:
 1. Nazioarteko harremanen izaera aldeaniztuna instituzionalizatu
 2. Nazio Batuen oinarritzko helburuak aurreratu (bakea, segurtasuna)
 3. Nazioarteko zuzenbidearen aurrerapausua izan zen giza eskubideen nazioarteko irismena azpimarratu zuen bitartean

4. II.M.G. ez zen erakundearen huts egitearen adierazgarri izan, antzeko nazioarteko erakunde baten beharra agerian utzi.
- 1941 uztaila → Londoneko Adierazpena (13 estatuetako ordezkari)
 - 1941 abuztua → Atlantikoko Karta adostu (Roosvelt eta Churchill)
 - 1944 abuztua-urria → Dumbarton Oaks-en (Washington) erakunde berria sortzeko akordioa (Txina, AEB, BH, SESB)
 - 1945 apirila → San Francisco konferentzia
 - 1945 ekainak 26 → Nazio Batuak Erakundearen Karta bozkatu, onartu. Urriaren 24ean indarrean sartu (51 estatu)
 - Erakundeen oinarriak:
 1. NBE oinarriak eta helburuak jaso.
 2. Hitzaurrea eta III artikulua 19 kapitulutan banatuta.
 - I. kapituluak oinarriak eta helburuak zehazten ditu. Lau helburu:
 1. Nazioarteko bakea eta segurtasuna babestu.
 2. Adiskidantzazko harremanak sustatu.
 3. Estatuak izan ditzaketan arazoaren konponbiderako laguntza eskaini.
 4. Estatuaren negoziaketarako esparru egokia izan.
 - Nazio batuen erakundeak 193 kide. Sartu diren azkenak:
 1. Suitza eta Timor Leste 2002
 2. Montenegro 2006
 3. Hego Sudan 2011
 - Vatikanoa estatu begiralea
 - Palestina estatu begiralea 2012/11/29tik
 - Egoitza nagusia NY-en. Bulego nagusiak: Genevan, Vienan, Nairobin.
 - 6 hizkuntza ofizial: inglesa, frantsesa, txinera, arabiera, errusiera, gaztelera.
 - Lan-hizkuntzak: ingeles frantses. Batzutan gaztelera.
 - Erakundearen jardura esparru nagusiak:
 1. Bakea/segurtasuna mantendu (SK)
 2. Giza eskubideen defentsa, justizia, nazioarte zuzenbidearen errespetua.
 3. Laguntza humanitarioa eskaini, ez bakarrik larrialditan
 4. Garapenaren sustapena
 - Jardura hauek aurrera eramateko → NB-ak agentzia, erakunde, bulego, programa ta funts desberdinez baliatu.
 - Organo nagusiak:
 - Asanblada orokorra
 - Segurtasun Kontseilua
 - Gizarte eta ekono kontseilua
 - Administrazio finantziarioaren kontseilua
 - Nazioarteko justizia auzitegia
 - Idazkaritza
- **ASANBLADA OROKORRA**
- Organo Demokratikoa

- Estatu guztiak ordezkatuak berdintasun printzipioa bermatzea da.
- Erabakiak ez dira lotesleak gomendioak
- Idazkari nagusiaren izendapena (SK-ren gomendioa).
- SK-rako kide ez iraunkorrak hautatu.
- Kide berrien onarpena (SK-rekin batera) 2/3
- Bakea eta segurtasunaren inguruan neurriak har ditzake (SK gai berdinarekin ez badabil edota SK-an adostasunik ematen ez bada) 2/3
- Bakea mantentzeko operazioen aurrekontua erabaki 2/3
- Aurrekontua 2 urtetarako onartu, estatu kideen kuotan zehaztu 2/3 (errenta per capita-ren arabera)
- Kideren batek 2 urteko kuotak zor baditu AO-k bozka ken diezaioke 19. Art. Aplikatuz.
- Gizarte eta Ekonomia kontseiluko eta administrazio Fiduziarioaren kontseiluko hautazkoak diren kideak aukeratu.
- SK-rekin batera Nazioarteko justizia auzitegiko magistratuak.
- Ohiko Batzarra urtero irailaren hirugarren asteko asteartean hasten da.
- Ezohikoak egin ditzake ere (SK-ak, estatu kideek hala eskatuz gero)

→ SEGURTASUN KONTSEILUA

- Funtzio nagusia: nazioarteko bakea/segurtasuna mantendu.
- 15 kide eta 5 iraunkorrak (AEB, Errusia, BH, Frantzia eta Txina) (1965 arte 11 kide)
- Iraunkorrak ez diren kideak bi urtetarako aukeratzen ditu Asanblada orokorrak.
- Bolivia, Etiopia, Italia/Herbehereak, Kazakhstan, Suedia (2017-2018)
- Boli Kosta, Ekuatore Guinea, Kuwait, Peru, Polonia (2018-2019)
- Belgika, Dominikar Errepublika, Alemania, Indonesia y Hego Afrika (2019-2020)

→ **GIZARTE ETA EKONOMIA KONTSEILUA**

- Nazioarteko ELKARKIDETZA ETA GARAPE EKONOMIKOAREN ETA SOZIALAREN SUSTAPENA.
- NBE-aren organorik handiena
- 54 kide (E-ren ordezkariak) 3 urtetarako hautatuak (AO-k)
- Erabakiak gehiengo soilaz hartu
- Gizarte eta ekonomia arazoak tratatzeko foro nagusia gomendioak estatu kideei eta NBE-ri.
- Ekonomia, Gizarte, kultura, hezkuntza, osasuna... ikasketa, txostenak egiten ditu.
- Giza eskubideen eta oinarrizko askatasunen sustapena bultzatu
- Nazioarteko Konferentzia handien prestaketaz eta jarraipenaz arduratu
- Erakunde espezializatuen koordinazioaz arduratu
- Urtero batzar saio laburrak eta uztailean nagusia
- Eguneroko lana organo-lotu eta subsidiari desberdinek egin.
- 9 batzorde organiko
- 5 batzorde erregional
- 5 batzorde iraunkor
- Adituen taldeekin (garapen planifikazioa, errekurtsu naturalak, eskubide eko., soz., kultu)
- PNUD, PNUMA, UNICEFF eta FNUAP programen eta erakunde desberdinen ekintzak koordinatzen ditu (FAO, OIT, OMS, UNESCO)
- GKE-kin harrean instituzionalizatua. GEK-ak 1600+GKE aintzatetsi ditu.

→ **ADMINISTRAZIO FIDUZIARIOAREN KONTSEILUA:**

- Fideikomison zeuden lurraldeen garapena eta independentzia prestatzea zuen helburu.
- Koloniak ziren, NBE-aren mandatupean eta estatuek kudeatzen zuten (SK-ak izendatuak).
- 11 lurralde ziren. 1994an Palau uharteak independentzia lortu eta ordutik ona organo hau ez da biltzen.
- Mendebaldeko Saharak independentzia bidean dirau oraindik. 1990an AO-k Saharako arazoa deskolonizazio arazoa zela onartu zuen.
- NBE-en Kartaren erreformarekin desagertu.

→ NAZIOARTEKO JUSTIZIA GORTEA:

- Erakundearen organo judizial nagusia.
- Hagan du egoitza (Herbehereak).
- Gortearen estatutua Kartan zehazten da (XIV. Kap.).
- Estatuaren eztabaidak epaitzen ditu eta iritzia NBentzat eta beronen erakunde espezializatuarentzat.
- Estatuak baino ezin dute hara jo. Ez pertsonak ezta gobernuarteko erakundeak.
- Estatuak Gortera jotzen badute epaia loteslea.
- Batek bai eta besteak ez epaia ez da loteslea izango.
- Asanblada Orokorrak eta Segurtasun Kontseiluak irizpena eska diezaiolke.
- Gainontzeko organismoek Asanbladaren baimena izanik euren jardueraren inguruko irizpenak.
- 15 magistratuak osatzen dute.
- A. Orokorraren eta Segurtasun Kontseiluaren onarpena behar du izan hautatua izateko.
- Munduko sistema juridiko guztiak ordezkatuak.
- SK-ko kide iraunkorrek beti magistratu bana.
- Magistratuak 9 urtetarako. 2. mandatu bat ere.
- Hiruan behin Gortearen herena berriztatzen da.

→ BAINA...

- Gortearen gaitasunak murriztuak estatuak epaiak betetzen ez dituztelako.
- Segurtasun Kontseiluak ez ditu neurririk hartzen epaia betearazteko kide iraunkor baten interesen aurka bada.
- Botere banaketa argia ematen ez dela kritikatzeko dute.

→ IDAZKARITZA

- Eguneroko lan zama bideratzen du.
- Idazkari Orokorra administrazio funtzionari gorena.
- Idazkaritzaren funtzioak eta gaitasunak Kartak zehazten ditu XV. Kap.-an (97-101 art.-ak)
- AO-k hautatzen du SK-ren gomendioz (beto) 5 urtetarako berriztatzailea da kargua 2. mandatu bat.
- Praktika onartua baina ez idatzia: Idazkaria ez da kide iraunkorren estatukoa. Erregioen artean txandatzen da.

Europa mendebaldekoa.....	4
Hego Amerika.....	1
Asia.....	2
E. Ekialdea.....	0
Afrikak.....	2
B.Estatuak.....	0

- Antonio Guterres (Portugal) 2017an hartu zuen kargua 9. Idazkari Orokorra.
- 60ko h.-an SESB-k Idazkari O.-aren figura ezabatzea proposatu eta troika ezarri garaiko blokeen artean.
- Asanblada Orokorra, Segurtasun Kontseilua eta Gizarte eta Ekonomia Kontseilua biltzea eskatu.
- Bitartekari lanak egiten ditu ere eztabaidan dauden estatuen artean (Txipre, Libia, Ekialde Timor,..).

NAZIO BATUAK GAUR EGUN:

- Gerra hotzaren amaierak NBE-en indarpena ekarriko zuela uste zuten.
- Kartak agertzen dituen anbizio handiko helburuak (mundu mailako bakea) eta egoera errealdaren artean alde handia dago.
- Segurtasun arazoak estatuen aliantza militarren menpean daude.
- Segurtasun Kontseilua potentzia direktorioa (beto)
- Estatuak erakundearen ahulezia bultzatu.
- Harremanen aldean instituzionalizatu dute.
- Hainbat gairen garrantzia azpimarratu du.
- Mundu mailako Konferentziak deitu ditu:
 - Afrikako Errefuxiatuen Konferentzia 1984
 - Lurraren inguruko Kunbrea 1992
 - Populazio eta Garapenaren inguruko Konferentzia 1994
 - Garapenerako Mundu Konferentzia, Johannesburgo 2002
 - Milurteko Adierazpena 2000/Milurteko Garapenerako Helburuak 2015
- Estatu ahulek euren kezkak aurkezteko foroa.
- Erakundearen erreforma erronka nagusia

NAZIO BATUEN LORPENAK:

- Deskolonizazio prozesu handiena sustatu du (80 estatu baino gehiago).
- Ondasun eta zerbitzuetan 6.500 milioi \$ inbertitzen ditu urtero. UNICEFek munduan ekoizten diren txertoen erdia erosten ditu.
- Laguntza eta babesa ematen die 46 milioi desplazatuari.
- Hegazkigintza, nabigazio edota telekomunikazio zerbitzuetarako arau teknikoak jartzen ditu.
- Haurren gaixotasunen aurkako immunizatze unibertsalen aldeko txertaketa kanpainak, baztanga %99an ezabatu dute eta poliomieltis kasuek %99ra jeitsi dira.
- Munduko Elikagaien Programak urtero 5 milioi tona elikagai bidaltzen ditu 120 milioi pertsona elikatzeke.

NAZIO BATUAK ERREFORMATZEKO ARAZOAK:

- 2005eko irailean ospatu zen NBEren 60. urteurrenaren kunbreak helburu nagusi bi zituen: Milurteko Adierazpenaren helburuen errebisioa eta Erakundearen erreforma.
- AEBk 2003an Iraken aurka egin zuen gerrak NBEren aginpidearen inguruan zalantza ugari sortu zuen;
- Arrazoi honengatik Idazkari Orokorrak Goi-Mailako Taldeari txostena eskatu zion 2005eko martxoan aurkeztua: erreformarako 101 proposamen.
- NBEren etorkizunaren inguruko nazioarteko eztabaida AEBren botereaz aritu zen.
- Goi-Mailako Taldearen txostenak eta Idazkari Orokorrak aurkeztu zutena Segurtasun Kontseiluaren zabaltzea aurreikusten zuten AEBren boterea ahuldu.
- Idazkari Orokorrak Segurtasun Kontseiluaren erreforma eta Erakundearena deslotu nahi zuen.
- AEBk aurkako jarrera agertu zuen, erreforma osoa behar zuela izan adieraziz;
- Segurtasun Kontseiluaren erreforma alderik interesgarriena, estatu gehienak SKaren erreformaren alde daude baina erreformaren nondik-norakoak aztertzerakoan jarrera kontrajarriak agertzen dira.
- Kide iraunkor gehiago, zenbat? Nongoak? Zein irizpide erabiltzen da iraunkortasuna zehazteko? G4-aren proposamena
- Zer egin beto-eskubidearekin? Goi-Mailako Taldea handitzearen aurka agertzen da. Botu-adierazgarria aukera bat izan daiteke.
- Erreforma osoa edo erdibideko erreforma? Segurtasun Kontseiluarena soilik edo erakunde osoarena?
- Kide iraunkorren izendapena aintzinako gorrotoak berpiztu ditu (Txina eta Japon).
- Zaila da NBEaren erreforma AEBen laguntza/onespenik gabe aurrera eramatea
- Erakundeak funtzionamendu-akatsak agertzen ditu, petroleo elikagaien truke programa, sexu-abusuak Kongoko ED, Kojo Annan.
- AEBetako Kongresuak 2005eko uztailaren 29an NBEren Erreformarako Legea onartu zuen. AEBek erakundeari ordaintzen dizkioten kuoten %50era jeitsiko lituzkete erakundeak 39 erreforma hartzen ez bazituen. Etxe Zuria jarrera honen aurka agertu zen.
- Erreforma hauek erakundearen Funtzionamenduari dagozkie, programak eta proiektuak arrazionaltasunez aurrera eramateko.

4. eta 5. Gaiak: Indar Transnazionalak

- **Definizioa:** Nazioarteko gizartean eragina izan dezaketen jatorri pribatua duten fluxuak.

- **Marcel Merle:** Nazioarteko sisteman euren iritzia adierazi nahi duten ekimen pribatuko mugimendu edota elkartasun korronteak dira.

- **Gobernuz kanpoko erakundeak**

- II. Mundu Gerraz geroztik hasi gara GKE-ren berri izaten.
- Errealitate erabat desberdinak hartzen ditu (tamainagatik, helburuengatik, aurrera eramaten dituzten ekintzengatik...)

○ **Definizioa:**

- **Merle-k:** Nazionalitate desberdinetako partikularrez osatutako elkartasun taldeak edo mugimenduak dira. Egitura iraunkorra dute eta euren helburuak irabazi-asmorik gabekoak izango dira.
- **NB-en gizarte eta ekonomia kontseiluak:** Gobernuen arteko akordio bidez eratu ez den edozein erakunde gobernuz kanpoko erakunde bezala hartuko da gobernu agintariengandik izendaturiko kideak onartzen badituzte ere. Kide horiek ez dute erakundearen barnean espresio eta iritzia askatazuna oztopatu behar (izaera pribatua):
- **Europako kontseiluarentzat GKEek baldintza hauek bete behar:**
 - Irabazi asmorik gabekoa izan
 - Kide baten estate barneko zuzenbidearen egintzaren ondorioz eratu izan.
 - Ekintza afektiboak aurrera eramatea gutxinez 2 estatutan.

Aitzindariak:

- XIX. Mendera arte bitzita erlijiosoarekin erlazionaturik (monastegietan, peregrinazioetan, abegi ordenak etab.).
- XIX. Mendean partikularrak elkartzen/antolatzen hasiko dira.
- Helburua: iraultza industrialak sortutako injusticia sozialei aurre egitea.
- Garapenerako nazioarteko proiektuen garapena IIMGren ondoren eman ziren eta NB-en erakundearen agerpenarekin. Adb.: Unicef Alemaniako haurren laguntzarako...
- GKE-k izan duten eboluzioa 6 belaunalditan banatu daitezke:

1. Sorospen eredua (1945-1960) IIMG-ko kaltetuei laguntzeko

- Hasieran, beharrezko ondasunen banaketa kudeatu. Oxfam 1942an sortu, alemaniaren blokeoa pairatzen ari ziren greziarrak laguntzeko.
- Zeoze gertatze baten larrialdietara jotzen zuten soilik, bat-bateko laguntza zen, ez luzarokoa.
- Kanpainak diru ekarpenak sustatu nahi zituzten eta aurreiritzietan...

2. Garapen eredua(1960-1973)

- Deskolonizazioaren garaian, eredu laguntzaileari lehen kritikak (latinoamerikatik).
- Hegoaldeko herrietan momentuko beharrak asetzeaz gain, epe luzerako garapenerako plan estrategikoak behar zirela aldarrikatu.
- Erakunde berriek hegoaldearen garapena sustatzean, iparraldeko garapen plan berberak inportatu.
- Izaera “iparzentrista” bada ere, GKE-k hegoaldeari buruzko irudi errealistagoa igortzen zioten jendeari eta duinagoa hartzailearentzako.

3. Eredu kritikoa (1973-1995)

- Eurozentrismoari kritika, teoria honen iritzizm iparraldeko herrialdeak aberatsak eta garatuak izan daitezten, hegoaldeko herrialdeak azpigaratuak izan behar.
- Teoria hauek azkar zabaldu, neurri handi batean garaian bizi zen giro politiko ez egonkorragatik.
- Biztanleriaren alde handi batek (gazteak batez ere) euren gobernuak errukitu zituzten, hegoalde eta iparraldearen arteko ezberdintasunak sistemikoak zirela uste baitzuten.
- Eredu komunikatibo alternatiboak garatzen hasi ziren, publizitate eta marketina alde batera utziz informazioaren mesedetan. Zorigaiztoko irudiak erakustea baino, arazoan arrazoiak eta erroak analizatzen zituzten; arazo gehienetan iparraldeak ardura zuela frogatuz.

4. Empowerment eredua (1980-1995)

- Gerra hotzaren amaiera→erakundeen komunikazio ereduak aldatu ziren. Eredu laguntzailea bertan behera eta 1. Aldiz hegoaldeko biztanleria bere istoriaren protagonista bihurtu.
- Erakundeak komunikazio etiko eta duinago bat egiten ahalegindu ziren, iraganeko kanpaina sentsazionalistak alde batera utzi, hegoaldearen aniztasuna irudikatzen ahalegindu ziren.
- Gizakiaren arteko lankidetzaz gain, estatuen (iparraldeko zein hegoaldeko) artekoa funtsezkoa da ere garapena sustatzeko. 80ko hamarkadatik Aurrera, nazioarteko erakundeek berebiziko garrantzia dute garapenaren arloan, haiek baitira estatuen diru laguntzak kudeatzen dituztenak.

5. Gizarte globalaren eredu (1995-2007)

- Pentsamolde bakarra erabat gailendu eta globalizazioak ordu arteko garapen eredu guztiak baliogabetzen ditu.
- Iparraldeko biztanleria garapenera ohitzen da eta berezkozat jotzen du, sistema kapitalistak dena menderatzen du eta elkartasuna zein lankidetzak eredu kontsumista baten bitartez ematen dira maiz.
- Komunikazioari dagokionez, inoiz baino euskarri gehio daude eskuragarri 90ko hamarkadatik Aurrera. Gero ta hedabide gehiago, orduan eta ohikoagoak ziren kanpainak.
- Dena den, aldaketa hau kuantitatiboa izan zan, merkatuen askatasunaren aitzakipean, hainbat erakundek muturreko kanpainak egiten hasi ziren dirua biltzeko asmoarekin.

6. Pentsamolde askearen eredu (2007-)

- Interenten hedapen azkarrak hegoaldeko herrialdetan, gizarteak inoiz baino gehio hurbildu. Internetek informazio askatasuna eskaintzen dio erabiltzaileari, bitartekaritzarik Gabe.
- Erabiltzaileak bere kabuz bilatu dezake gatazka baten inguruko informazioa, jatorria zein den ikertu eta bere pentsamolde propioa eraiki dezake. Parte hartu nahi duen ala ez ere erabaki dezake.
- XXI. Mendeko hiritar kritiko berriek parte hartzea exijitzen dute, Mugarik Gabe-ko langileek parte hartze honi “komunik-akzio” deitu diote.
- Erakunde hauen azterketa egiterako orduan estatuekin dituzten harremanak azpimarratu behar dira.
- Estatuek ez diete GKE-ei estatutu juridiko propiorik eman nahi izan (estatuen barne legediaren menpean daude). Estatutu juridiko propioa ez izateak GKE-en ekintza eremua murrizten du.
- Erakunde publikoek orohar GKEen proiektuek finantzatzen dituzte.
- GKE-en sinesgarritasuna nazioarteko estatutu kontsultiboak ematen du. Hainbat erakundek estatutu hori ematen dute eta “Sinesgarritasun agiria” da GKE askorentzat (NBE, UNESCO, OMS, BIRD, Europako Kontseilua)
- GKE-en ekintza eremua 4 sail nagusitan bana dezakegu:
 1. Laguntza humanitarioa
 2. Ingurugiroaren defentsa laguntza
 3. Giza eskubideen sustapena
 4. Garapenerako
 - Lau metodoei dagokienez:
 1. Sentsibilizazio kanpainak
 2. Hezkuntza zentroak
 3. Hedabideak
 4. Unitate operatiboak

Multinazionalak:

- Lehen mailako aktoreak dira nazioarteko sisteman.
- Bi edo estatu gehiagotan eramaten dute aurrera euren ekintza.
- Formula desberdinak estatuetan ezartzeko (filialak, sukurtsalak, estatu-entrepresak erosi,...)
- Logika bateratua dute, multinazional guztiarentzat berdin
- Hedapena Bigarren Mundu Gerraz geroztik.
- Garapenean dauden estatuentzat mehatxua.

→ **Definizioak:**

- **Granell** → Enpresa multinazionalak kudeaketa gunea zentralizatua dute, hainbat estatutan interesak dituzte eta horretarako tokian tokiko baldintza legalak, ekonomikoak eta sozialetara moldatzen dira irabaziak areagotzeko eta nazioarte mailan duten gaitasuna defendatzeko.
- **Merle** → Enpresa hauen helburua ez da euren iharduera hedatzea soilik. Mundu osoan zehar ezartzearen arrazoiak hauek dira: i) ekoizpen kosteak gutxitzen saiatzen dira eta horretarako tokian tokiko abantail fiskalez, geografikoez eta sozialez baliatzen dira; ii) iharduera dibertsifikatzen dute irabaziak handitzeko eta arriskuak banatzeko (produkzio mota desberdinetan, produkzio gunen desberdinetan,...)

- Globalizazio prozesuan eragileak dira.
- Kapitalen kontrol gabeko joan etorriak arriskuaren eta espekulazioaren filosofia sortu du.
- Multinazionalen eta estatuen arteko harremana hainbat ikerlarien aztergaia, bi ikuspegi kontrajarrietatik:

a. Estrukturalistek, multinazionalak estatu hartzaileen barne politikan izan duten esku sartze politikoa aztertu dute. Dependentsia harremanen errudunak dira, lan esku merkeaz baliatu dira teknologia berririk ezarri gabe. Garapena oztopatzen dute eta industria kutsatzaileak lurralde horietara eraman dituzte.

b. Transnazionalistek, multinazionalak interdependentsia sareen sortzaileak direla diote (inbertsioen bidez).

6. Gaia: Boterea eta ordena mundu anarkikoan: oreka, hegemonia eta polaritatea

6.1. Botere kontzeptua

- Hiru **zentzu** desberdin:
 - Kontrola
 - Gaitasunak edo baliabideak
 - Xedea
- Botereak 3 **osagai** nagusi ditu: aginpidea, eragina eta indarra.
- Boterea erlatiboa da, dinamikoa, jarraitasuna du eta elkarrekikoa da ere.

- “Botere-paradoxa”, aparteko gaitasunak eta baliabideak baina onurarik ez atera.
- NNHH-tan botere nazionala eta honen eragina besteengan da aztertzen dena.
- Kontzeptu giltzarria Zientzia Politikoan eta Nazioarteko Harremanetan.
- Boterea interakzio-prozesua bat da, non estatu bat beste baten ekintzetan eragina izateko gai den (Dahl, 1957).
- Weber-ek boterea modu erlazional batean definitu zuen, norberaren desira besteen artean gailentzeko aukera gisa. Hiru ondorio:
 - a) botereak izaera erlazionala du.
 - b) botereari estuki lotuta dago zer toki duen batek sistemaren barruan
 - c) boterea ez da bakarrik norberaren nahiak besteen gainetik betetzea, baizik eta besteen laguntzarekin ere erabiltzea horretarako.


6.2. Ibilbide historikoa

- Filosofo eta politologo klasikoen ikuspuntutik, boterearen grina giza naturaren barneko bulkada baten emaitza zen.
- Estatuak pertsonaz osaturik daudenez, nazioek boterearekiko harreman berekoia izango dute .
- Haien ustez, beraz, politika beti botere-lehia bat izango da.
- Boterea hiru mailatan sailka dezakegu:
 1. militarra
 2. ekonomikoa
 3. iritziaren gaineko boterea
- Boterearen inguruko ikerketa nagusiak hiru multzotan taldekatu ditugu:
 - a) Boterea gatazkak irabazteko gaitasunarekin berdintzen du, botera elementu materialez osaturik dago.
 - b) Boterea alternatibak mugatzearekin lotzen du
 - c) Boterea normaltasunaren moldaketarekin erlazionatzen du. Boterea ez da bakarrik gatazketan agertzen, normaltasun-aroetan ere, adostasunak daudenean isiltasunak sortuz eta normaltasunaren irudia taxutuz.
- Botereari buruzko ikuspegiak boterearen izaera erlazionalaren eta izaera nazionalaren artean banatu dira.
- Kontzeptuaren garapena teoria bat baino gehiagoren menpe geratu da eta oinarrizko kontzeptua denez, beste garapen teorikoak baldintzatu ditu ere. (PRAKTIKA)
- Botere potentziala \neq botere erreala.
- Egitura-boterea: ekonomia politiko globalaren egitura zehazteko gaitasuna da. Mundu mailako potentziek baino ez dute gaitasun hau izango.

- Jokoaren arauak ezartzeko gaitasuna da, gainontzeko estatuek joko hori nola jokatu beharko duten zehazteko gaitasuna, alegia.

6.3. Sistemaren boterea eta egitura

- Nazioarteko sistemaren egitura, aktoreek elkarren artean mantentzen dituzten harremanen ondorioz ezartzen den boterearen konfigurazioa da



- Harremanak hierarkikoak Estatuak eta Potentziak desberdintzen ditugu.
- Potentzien balore sistemaren arabera sistema homogeenok edo heterogeenok.
- Potentzien kopuruaren arabera nazioarteko sistemak egitura desberdina: unipolar, bipolar, multipolar.


6.3.1. Sistema unipolarra edo inperiala

- Potentzia bakar batek agenda ezartzen du, arauak eman eta botere iturri guztiak kontrolatzen ditu. Hertsadura baliabide guztiak kontrolatzen ditu eta bere balore sistema inposatzen du.

- Sistemaren egonkortasuna krisian sartzen da sistemaren beste unitateak horizontalki izandako harremanen ondorioz potentzia hegemonikoaren boterea urratzen dutelako, potentzia hegemonikoaren barne gatazkengatik, edota kanpotik eragiten delako aldaketa «barbaroen inbasioa».

6.3.2. Sistema bipolarra

- Bi potentzien arteko orekak determinatzen du sistema hau.
- Gaitasun berdintsuak dituzte, gainontzeko estatuenak baino hobeak.



- Agenda, arauak eta koertzioa ezartzen dituzte. Sistema homogeenoa edo heterogeenoa izan daiteke.

- Sistemaren egonkortasuna krisian sartzen da oreka bipolarraren porrotaren ondorioz bi potentzien arteko gatazka armatua; potentzia baten (edo biren) nagusitasunaren galera; edo sistemaren urradura orokorra sistemaren estatuek

izan dituzten harremanen ondorioz.

6.3.3. Sistema multipolarra

- Potentzia askoren arteko botere orekak determinatzen du sistema mota hau.
- Potentzien gaitasuna berdintsua da, koertzio boterea banatuagoa aliantzak
- Aliantzak potentzien nahi hegemonikoak oztopatzeko bidea.

Heterogeneotasunak ziurgabetasuna ezartzen du.

- 30. hamarkadako Europa sistema heterogeneoa.
- 1815ko Vienako Kongresuko Europa, sistema homogeneoa.
- Sistemaren gaineko aldaketa aliantzen araberakoa, potentzien arteko gerran bukatu daiteke. Gerraren ondorioz, potentzia batzuen desagertzea eta berrien sorrera gerta daiteke.

6.4. Ordena eta botere-oreka

• Kontzeptu honi inguruko erreferentziak Grezia klasikoan eta Indian aurkitu ditzakegu.

- XVIII. mendeko Europan lehenengo lantze teorikoak.
- Nazioarteko sistema Estatu esanguratsu bik edo gehiagok osatzen dute eta estatuen botere-baliabideak era berdinean banatuak daude.
- Estatu batek besteak baino botere errekurtsu gehiago bereganatzen dituenean, gerraren aukera handitzen da.
- Gerraren funtzioa orduan, botere-oreka berria ezartzea izango da.
- Botere-orekak hiru funtzio nagusi izan ditu Estatu-sistema modernoan:



- a. Oreka globalaren bidez sistema ez da eraldatua izan—konkisten bitartez— inperio unibertsal batean. Estatu sistema mantendu izan da.
 - b. Tokian-tokiko orekek Estatu ahulen bizi-iraupena bermatu dute.
 - c. Oreka hauek nazioarteko ordena bultzatzen duten oinarritzko erakundeen agerpena eta funtzionamendua faboratu dute.
- Botere-orekaren funtzio nagusia estatu-sistema babestea da.
 - Bi erataro ager daiteke, **berez** edo **nahita**.
 - Botere-oreka **sinplea** edo **anizkorra** izan daiteke.
 - Botere-orekaren helburua ez da bakea mantentzea. Gerrarekin erlazionatzen da, oreka mantentzearen estatuei ezinbestekoa suerta dakieke gerra egitea.

6.5. Ordena eta hegemonia

- Hegemonia: Estatu batek besteekiko ezartzen duen nagusitasuna
- Estatu bakar batek botere errekurtsio gehienak metatzen ditu, sistemaren egitura erabat asimetrikoa da.
- Potentzia nagusi desberdinen goraldi eta erorialdi segida-historikoarena da.
- Estatu hegemonikoa ahultzen denean gerra ematen da, gerra horretatik garaile ateratzen dena, Estatu hegemoniko berria bihurtuko da.
- Bakealdiak Estatu baten nagusitasunarekin egokitzen diren bitartean, gerrak botere-orekarekin erlazionatzen dira.
- Estatu hegemonikoaren existentziak ez du kolokan jartzen estatu-sistemaren bizi-iraupena.
- Estatu hegemonikoak mundu mailako ordena politikoaren eta ekonomikoaren oinarriak ezartzen ditu.
- Ordena legitimoa da oinarri horiek aldatu nahi dituen estatua agertzen ez den bitartean.
- Estatu hegemonikoa goraldian sartuko da abantaila politikoak eta ekonomikoak esplotatzen dituenen → Soberakinak.

[abantaila nagusitasun militarra terminoetan]

- Nagusitasunak kosteak sortzen ditu ere. Kosteak eta abantailak parekatzen direnean...
- Estatu hegemonikoaren beherakada eman daiteke:
 - a. Barne-faktoreak: hazkunde ekonomikoak zuen kemena galtzen delako.
 - b. Kanpo-faktoreak: menperatze politikaren gastuek gora egiten dute eta lehentasun ekonomikoa eta teknologikoa galtzen du.
- Nagusitasuna behera egiten ari dela ikusten duenean aukera bi ditu:
 - a. Errekurtsioak handitu —zergak.
 - b. Kanpo ekintzek sortzen dituzten kosteak gutxitu —gerra prebentiboa edo nazioarteko konpromezuak utzi.
- Lortzen ez badu, nagusitasuna nahi duen estatua agertuko da eta gerra bide bakarra.
- Hegemonia ez da behin-betirako.

6.6. Boterearen logika nazioarteko gizarte globalean

1. Botere gogorra: indar militarra eta ekonomikoa.
2. Botere biguna: kultura, hizkuntza, ideologia, balore-sistema...

6.7. Botere gogorra

- Koertzioarekin erlazionatzen dugu, baliabide materialak dira, ekonomia, gaitasun militarra.
- Gaur egun, boterearen oinarriak ez dira indar militarrean finkatzen, hiru arrazoiengatik:

✓ Arma nuklearrak ez dira erabilgarriak duten indar suntsitzaileetatik.

✓ Nazionalismoak hartu duen garrantziatik.

✓ Aldaketa soziala, gizarte postindustrialek ongizate soziala nahiago dute handitasuna baino.

6.8. Botere biguna:

• Norberak nahi duena besteek ere nahi izatea lortzeko gaitasuna da. Beste aktoreen agenda (lehenetasunak), norberaren interesetara egokitzeko gaitasuna da.

• “...hay una forma indirecta de ejercer el poder. Un país puede obtener los resultados que desea porque otros países quieren seguir su estela, admirando sus valores, emulando su ejemplo, aspirando a su nivel de prosperidad y apertura.” (Nye, 2003: 30 orr.)

• Persuasioarekin erlazionatzen da, ideologiarekin, sinbolo kulturekin, baloreekin, sinisgarritasunarekin, prestigioarekin.

→ baina...

• Nye-k bi botereak beharrezkoak direla azpimarratzen du.

• “Es tan importante [...] atraer a terceros como obligar a cambiar mediante amenazas o el uso de armas militares o económicas” (Nye, 2003: 33 orr.)

• Globalizazioa eta informazio-iraultzaren ondorioz, botere bigunak garrantzia hartzen du informazio kosteek gora egiten dutelako eta sinisgarritasuna behar dutelako.

• soft power + hard power= smart power

→ **Botere bigunaren gaitasunak**

- a. Erakartzeko, limurtzeko gaitasuna (persuasioa Aktorearen kanpotik barrura.
- b. Lehenetasunak eratzeko gaitasuna (ideologia). Barnetik, kanpora.
- Lehenengo kasuan, AEBko zinema eta telebista botere bigunaren osagai nagusiak dira. Demokrazia, bigarren kasuaren adibide.
- Horrela, zinema eta telebista botere bigunaren kontzeptu bigunak dira eta demokrazia kontzeptu gogorra, inplikazio gehiago dituelako.
- 2004an Indonesiako tsunamiaren ondorioz, Estatu Batuak bere armada bidali zuen berreraikuntza lanetan laguntzeko. Botere militarra helburu humanitarioetan erabiltzea. Botere gogorraren adibiderik argiena (soldaduak), botere bigunaren adibidean bihurtzeko gaitasuna.

→ **Botere bigunari kritika**

- Afganistan, Irak eta Sirian sartzeko irrika... benetan garrantzia hartzen ari da botere biguna nazioarteko politikan?
- Nahikoak al dira telebista programak eta zinema mundu osoan eragina izateko?
- Ez da lurralde guztietara ailegatzeko, alde pobreetan, erregimen autoritarioek informazio fluxuak kontrolatzen dituzte.
- Demokraziarekin agertzen duen konpromezua:
 - Ez ditu erreformak sustatzen, Barhein.
 - Demokrazia eta garapen ekonomikoa ez doaz elkarrekin, Txina.
- Internet zelatatu eta operazio sekretuek deslegitimatzen dituzte AEB.

→ **Botere bigunari kritika(II)**

- Garrantzi gehiegi ematen die kultur-kodeei eta antolakuntza politikoari (AEBrena). Tradizio kultural berdina duten herrietan eragina izan dezake (SESB orbitan zeuden herriak) baina ez guztietan.
- Nye-k uste du arrakastaren islada ikustearekin edozein pertsona gauza izango dela aberastasunaren eta ongizatearen iturriak identifikatzeko eta bere herriak dituen arazoak ezagutzeko ere.
- Botere biguna teoriaren helburua AEBren hegemonia iraun araztea da eta helburu hau legitimatzea ere.

6.9. Polaritate gabeko aroa

- XXI. M-ko nazioarteko harremanen ezaugarri nagusia polaritate gabetasuna da.
- Boterea ez da estatu gutxiren edo gehiagoren eskuetan banatzen soilik (multipolaritatearen ezaugarria).
- Botere-gune gehiago dago eta ez dira estatu-nazioak (botere barreiapena/hedapena).
- Estatuak boterearen monopolioa galdu du.

Miren Mujika Telleria

- Nazioarteko erakundeak, estatu barruko erakundeak, hedabide globalak, alderdi politikoak, mugimendu erlijiosoak, talde armatuak... boterea banatuagoa dago.
- AEBren botere hegemonikoa krisian dago eta interbentzio militarrek okertu zaizkio ere,
- AEB-ren hegemoniari aurre egiteko potentzia eta potentzia taldea agertu da BRICS bezela.
- D. Trump presidente berriak kanpo politikan AEBren isolazionismoa bultzatuko ote duen ikusteke dago.
 - Barne-politikako gaiak erdian jarri kanpo politikaren kalterako
 - Errusiarekin harremanak konpondu
 - AEBren interesa lehentasuna ez den gerretan ez da sartuko
 - Ekialde Hurbiletik urrundu nahi du
 - Txina Asia Ekialdean hartzen ari den botereari aurre egingo al dio?
- Polaritate gabeziak mundua zihurgabeagoa, arriskutsuagoa bihurtuko du?
- Zer egin egoera horren aurrean? Nork lideratu beharko luke egoera berri hori?
- Nazioarteko politika aldeanztuna bidea? Guztien artean, gitxiagoren artean?
- Ze toki izango luke indar armatuak egoera horretan?
- “Adostutako polaritate gabetasuna” bidea? Zeinen artean?

7. Gaia: Diplomaziaren teoria eta praktika

7.1. Jarduera diplomatikoaren jatorria

- Diplomazia hitzak grekotik dator eta plegatu edo tolestu esan nahi du. Zeba? Ordezkarien akreditazioa gutun tolestuan eraman, diploma.

- Jatorria: Grezia klasikoa

- Negoziaketa zehatzak egitera maila goreneko ordezkariak bidali greziarrek. Amaitu eta itzuli.

- Diplomatiakoak buruzagien senide, maila goreneko politikariak.

- Diplomazia modernoaren jatorria: Italian XIII. Hiri estatuen arteko harremanak estutzeko.

- Harreman egonkorrak ezartzeko: enbaxada sarea garatu European zehar.

- Harreman Diplomatikoen inguruko Vienako Konbentzioa (1961): Harreman diplomatikoak arautzen dituena. Indarrean → 1964ko apirilaren 24a

- Estatu hartzaileak misio diplomatikoa eta enbaxadorea onartu behar du, *Placet*-a eman. Akreditazioa.

- Kategoria desberdinak:

- Misio burua: ordezkari gorena, enbaxadorea.
- Diplomatiakoak: kontsulak, negozio arduradunak.
- Administrazio eta teknikoak.
- Bestelako zerbitzuak (morroiak, etab. Estatu hartzailekoak izan daitezke ere).

- Estatu batek atzerriak duen ordezkari misio diplomatikoa deritzogu

- Enbaxada
- Kontsulatuak
- Bulegoak

- Nazioarte mailan onartuak ez dauden estatuak ezin dute misio diplomatikorik zabaldu Ordezkaritza Bulegoak.

- Taipeiko Ordezkaritza Bulegoak, Ipar Txipreko Turkiar Errepublikako Bulegoak. Ez dago akreditatu beharrik baina bertan aritzen direnak ez dute inmunitaterik izango.

- Diplomazia: negoziazioaren bidez egiten diren nazioarteko harremanak; harreman horiek enbaxadore eta ordezkarien bidez aurrera eramaten dira; diplomatikoaren lanbidea edo artea (Oxford hiztegia).

- Harreman Diplomatikoen inguruko Vienako Hitzarmena (1961). Eskubideak, inmunitatea.

- Kontsulatu-Harremanen inguruko Vienako Hitzarmena (1963). Kontsulatuaren funtzionamendu, eginkizunaz.

-Konbentzioaren 3. Artikuluan zehaztu:

Miren Mujika Telleria

1. Ordezkapena
2. Ordezkatzen duen Estatuaren interesan eta hiritarrak babestu
3. Estatu hartzailearen gobernuarekin negoziaketetan aritzea
4. Informazioa lortu dezake legezko bitartekoen bidez.
5. Adiskidantzako harremanak bermatu eta harreman ekonomiko, kulturak eta sozialekin.

- Diplomazia zuzena: alde biko/alde anitzekoa
- Gailurreko diplomazia
- Kanpo arazoetarako ministrarien kasuan denean “mailarik goreneko diplomazia deritzogu.
- Alde biko bisita ofiziala elkarrizketa itxiak edota elkarrizketa irekiak izan daitezke.
- Alde anitzeko diplomazia zuzenak gero eta garrantzi gehiago lortu du.
- Diplomazia parlamentarioa =/ konferentzia diplomatikoa.

Diplomazia-zerbitzu ereduak

Britania Handia

- Foreign & Commonwealth Office-ek bideratzen du, egitura zentralizatua. Profesionalak (neutral).
- Kanpo defentsarako politika, merkataritza-politika FCO-k erabakitzen du.
- Ministroak aholkulariak dira, politiken garapena/sustapenaren ardura.
- EB-ren eraginez, aldaketak egituran Cabinet Office-ko Europarako Idazkaritza sail nagusia da europako gaietan eta FCO-k jarraipen lanak.

Frantzia

- 1958ko Konstituzioak Errepublikako Presidenteari lehentasuna kanpo gaietan eta honek ministroari.
- Kanpo Arazoetarako Ministroa Presidentearen aurrean erantzule nahiz Lehen Ministroa izendatua izan.
- Bizikidetasuna ematen denean konplikatzen da.
- EB-ren eraginez I. Ministroaren Bulegoa eta zerbitzu diplomatikoen artean kompetentzia arazoak.
- Diplomatikoak profesionalak sarritan lan-utzialdiak egiten dituzte.

Amerikako Estatu Batuak

- Estatu Departamentuak bideratzen du AEB-ren K.P.
- Zatiketa handia ematen da KP-ren elaborazioan, defentsa Departamentuak, CIA, Altxorra, Merkataritza
- Agentzien arteko koordinaziorik ez, unean erabakitzen dute zein agentziak bideratuko duen.
- Zatiketa hau enbaxadetan ematen da ere.
- Estatu Departamentua Kongresuarekin kompetentzia.
- Enbaxadoreak Presidenteak izendatzen dituzte.

7.4. Diplomaziak jasaten dituen aldaketak

- XIX. Arte estatuen arteko harreman diplomatikoak → alde bikoak.
- Nazioarteko Erakundeen agerpenarekin XIX.-an harreman horiek gobernuartekoak bilakatu dira.

- XX. Bigarren erdialdetik aurrera 2 joera: supra eta azpinazionalitatea

➤ Supranazionalitatea:

- Estatuan subiranotasuna partekatzearen ondorio da.
- Nazioarteko agendan gai berriak sartu: ingurugiroa, drogak...
- Egoera honetatik potentzia hegemonikoa ez da libratzen.
- NB-en ebazpenak eta erabakiak jarraitu behar ditu.
- Haien interesen alde sortu dituzten erakundeak: OMC, elkartrukeen politikan bideratzen du eta bertan ez dago beto eskubiderik.
- Kyotoko protokoloari uko egin zioten baina GKE-k iritzi publikoan eragina presio egin dezan.
- Europako estatuetan (EB) supranazionalitatearen eragina argiago ikus dezakegu.
- KSPB-a horren adibide. COREU komunikazio sarea.

➤ Azpinazionalitatea:

- Estatu-nazio tradizionalak kanpo arazoetan izan duen kontrola azpitik zulatzen ari da.
- Diplomaziaren ikuspegitik, kanpo arazoan ardura gobernu zentralei dagozkie eta gobernu erregionalak kanpo geratzen dira.
- Gobernu erregionalak kanpo politikari ekiten diote ere gobernu zentraletatik pasa gabe.
- Kultura eta turismo ordezkariak merkataritza-sustapenaz arduratzen dira (Valentziak Txinan du bulegoa, Euskadik ere -SPRI-).
- EBko Maastricht-eko Itunak Erregioen Lantaldea sortu zuen, erregioek elkarren arteko harreman hori sustatzeko.
- Oraindik kompetentzia gutxi du.
- Enbaxada zuten hegemonia ahuldu dute.
- EB-ko estatuek konpromezu supranazionalak hartu dituzte kompetentziak erregioetara transferitu dituzten bitartean.
- Industria legegintzaren %70a eta gizarte-legegintzaren %40a zuzenean aplikatzen da baina kompetentzia horiek jada erregioek dituzte.

- Bestelako diplomazia: enpresena, GKE-ena

- Hainbat enpresek antzina koloniak ziren estatuekin harremana izaten jarraitu dute.
- Hasieran kanpo arazoetarako ministeritza erabiltzen zuten euren interes defentsarako.
- Gaur egun, multinazionalak harreman zuzenak izaten dituzte BUKATU

Miren Mujika Telleria

- Arrisku politikoen aurkako aseguroak. Entresei saltzen dieten informazioa estatuen inguruan.
- Konpainia hauek diplomatikoei konpetentzia egiten diote edonoren esku eta merkeagoa.
- Atzerrian gaudela lapurreta izanez gero aseguroa.
- Gobernuz kanpoko Erakundeek hedabideak erabiltzen dituzte iritzi publikoengan eragina izateko.
- Txostenak aurkeztu edota haiek ekintzak notiziak bihurtzen dituzte.
- Internet-ek taldeen elkarren arteko komunikazioa errezten du jarraitzailekopurua baino eraginkortasuna da garrantzitsuagoa.

8.Gaia: Indarkeriazko gatazkak → ohiko gerratik terrorismora

8.1. Gatazka armatuen inguruko azalpena

- Gerra ≠gatazka
- Indarkeriaren bidez arautzen den maila handiko gatazka da gerra.
- Aukera politikoa da Clausewitz “gerra beste bitartekoen bidez egiten den politikaren jarraipena da”.
- K.a. 1496 — K.o. 1945 268 urtetan bakea.
- 1945—1978 - 26 bake-egun baino ez.
- 70. h-ren amaieran 12 bat gerra aldi berean.
- 1993an estatuen arteko gerrarik ez baina 35 estatuen barnean gatazka armatuak ematen ziren.
- Gerrarik laburrena: 1896ko abuztuaren 27an eman zen Britaina Handiaren eta Zanzibarren artean eta 38 minutu baino etzuen iraun.
- Gerrarik luzeenak: Ehun Urteko Gerra (116 urte) Frantzia eta Inglaterraren arteko gerra (1337-1453) eta Arauco-ko gerra (1583-1883).
- Gerrak egiten dira:
 - errekurtsio naturalen gaineko kontrola lortzeko.
 - arrazoi erlijiosoengatik edo kulturalengatik.
 - botere harremanak aldatzeko asmoarekin.
 - lurralde-eztabaidak edo ekonomikoak konpontzeko edo bestelako arrazoiengatik.
- Carl von Clausewitz: gerra beste bitartekoen bidez egiten den politikaren jarraipena da.
- Sun Tzu: gerra iruzurraren artea da.
- Zientzia Politikoa eta Nazioarteko Harremanetan gerra tresna politikoa helburu politikoak lortzeko.
- Nazioarteko Zuzenbide Publikoan gerra kontzeptu juridiko onartua, estatu neutralak errespetatu.
- Genevako Hitzarmenak (1864-1977) gerretan parte hartzen ez duten pertsonen babesaz arduratzen dira.
- NZPan nazioarteko gerra: Estatu desberdinetako indar militar antolatuen arteko borroka.
- Gainontzekoak “gatazka armatuak” dira.
- **Indarkeriazko gerren artean...**
 - **Nazioarteko gerra:** Bi edo estatu gehiagoren artekoa. Gerra-deklarazio/bake hitzarmena: I Mundu Gerra, AEB-Afganistan, 2001
 - **Barne gerra:** gerra zibilak huts-egiten duten estatuetan. Nazioartekoak bilakatu daitezke. Sirian gerra zibila eman zen hasieran El Assaden erregimena eta opositoreen artean. Ondoren DAESH sartu da erdian, mendebaldeko potentziak, Errusia...
 - **Gerra mistoak:** mugimendu iraultzaileak, sezesio-gerra (gerra kolonialak)
 - **Gerrarik gabeko indarra:** muga istiluak honen adibide argia (Gr-Tk, Pe-Ek, Tx-Tw). Indarra tresna politikoa ez militarra.

8.2. Gerren sailkapena

- Erabateko gerra: etsaiaren sarraskia helburu: Espainiako gerra zibila, IIMG
- Gerra murriztuak:
 - Geografia eremua
 - Aktoreen arabera (gerra hotza)
 - Armamentua (nuklearrak, ohizkoak)
 - Bestelakoak, gerra azkarra, lubaki-gerra, gerra kirurgikoak,...
- Gerren sailkapena armen eta estrategien arabera:
 1. **Belaunaldiko gerrak:** su-armen agerpenarekin hasi zen. Gizaki talde handien arteko borroka gudu zelaian beronen ezaugarri nagusia. Napoleon garaiko gerrak adibide.
 2. **Belaunaldiko gerrak:** industria-iraultzaren ondorioz, gizaki talde handien garraioa eta artilleria-arma boteretsuen erabilera. I. MG.
 3. **Belaunaldiko gerrak:** maniobra-gerrak dira. Etsaia indargabetzea du helburu fisikoki suntsitu gabe. Gerra azkarra (taktikoa). Gerra-gurdi eta hegazkigintzan aurrerapen handiak. Ekintza taktikoen deszentralizazioa, “misioek” ordurarte gudu-zelaian ematen zen “ordena”rekin amaitu zuten. II. Mundu Gerra horren adibide. Poloniaren eta Frantziaren konkista, talde txikien ekintza taktikoak erabiltzen hasten dira (4. belaunaldiko gerren ezaugarria).
 4. **Belaunaldiko gerrak (gerra asimetrikoak):** etorkizuneko gerrekin identifikatzen dira. Gudu-zelaia zabaltzen da gizarte osoa hartuz. Talde txikien ekintza taktikoak nagusi, zibilak helburu. Etsaiaren eremu kulturala ere helburu. Gerra eta bakearen arteko muga desagertzen da, gudu-zelaiaren zehaztapena ere, gerrak gizarte osoa hartzen du. Gerra asimetrikoa paradigma bihurtzen da, insurgentzia eta terrorismoa honen adibide. Informazioa eta propaganda iritzi publikoan eragina izateko.
- Gaur egungo gerrak asimetrikoak dira:
 - Biolentziaren desmilitarizazioa: ez da armaden artean ematen, soldadu eta bestelako taldeen artean (paramilitarrak, talde armatuak...)
 - Taldeen arteko baliabide eta gaitasun oso desberdinak.
 - Hildakoen %80a zibilak dira (zibilen bahiketa, bortxaketa...)
 - Sarraskia bilatzen da (eta ez etsaia desarmatzea).
 - Lehen gerra-deklarazio/bake-hitzarmena, orain bake-prozesuak (bitartekariak, gizartearen inplikazioa).
- Garapen gutxiko gizarteek hobeto eusten diete
- Gizarte aberatsen ez (hildakoak).
- Higadura-prozesuak dira. Indar desberdintasuna abantaila bihurtzen dute baina ezinezko garaipena.
- Garapen teoriko berriak: araurik gabeko gerra Txina vs. AEB.

→ **Ba al da bidezko gerrarik?**

- Gerra inoiz edo behin justifikatu daiteke, zenbait baldintzapean eta nola egiten den.
 - DAESH/ISISen aurkako gerra bidezkoa al da?
- Nork bere burua defendatzeko edota bidezko defentsan onartzen diren gerrak.
- Ikusmolde moraletik gerrak bidezkoak izan daitezke...
 - Herriaren aurka bidegabeko eraso aurrera eramanean.
 - Benetako injustizia larria gertatzen denean.
 - Bide baketsuez nork bere burua defendatzeko aukera ez duen.
 - Bitarteko errugabeen gaineko kalterik sahiesteko.
- Bidezko gerrak baldintza hauek bete behar ditu:
 - Proporzionala behar du izan.
 - Herria ados ez badago orduan ez da bidezkoa izango.
 - Errugabeak ez dira hil behar, ezta bahituak dira.
 - Elkarrizketarako aukera guztiak agortu behar dira lehen, gerra azkeneko aukera baita.
 - Zilegia da bidezko gerrarik egitea? Eztabaida filosofiko eta politikoa handia.

→ **Segurtasun-komunitatea eta bake demokratikoa**

- Estatu postindustrialek gerraren aukera baztertu dute.
- Balore berdintsuak dituzten estatuak dira, erakunde berdinetan daude: EB.
- Estatu talde honek segurtasun-komunitatea sortu duela esan dezakegu.
- Demokrazia eta bakearen arteko lokarria osatzen du.
 - a) Estatu demokratikoak ez direnak baino baketsuagoak dira (Rosseau, Kant, Wilson...)
 - b) Besteak bezain bortitzak dira baina demokraziak elkarren artean ez dute gerrarik egiten (onartuena).
- Estatu demokratikoen nazioarte mailan murrizketa gehiago (iritzi publikoa, ekintza politiko gardena, oposizioa...).
- Zergatik egiten diete gerra estatu ez demokratikoei? Eztabaida sakona

- Bake demokratikoaren teoria demokrazia liberalek elkarri gerra egiten ez dietelako baliatzen da.
- Demokrazia falta=gatazka, korrupzioa, injustizia.
- Larderiako estatuak gerren errudunak dira.
- Demokrazia liberalak ezarriz gero, mundua baketsuagoa bilakatuko da.
- Baina... zer da demokrazia? Eta gerra? Eta bakea?
- Bake demokratikoaren teoriak bakea aldarrikatzen duen bitartean biolentzia justifikatzen du.
- Larderiako estatuak harreman baketsuak dituzte ere demokraziekin eta larderiako beste estatuarekin.
- Nazioarteko erakundeen parte dira.
- AEB vs. Allende/AEB- Saudi Arabia/ AEB-Taliban.
- Sendoa al da AEBren konpromezua demokraziarekin?

→ Nazioarteko terrorismoa

- Ez dago definizio juridiko onarturik.
- Terrorismoak zibilak itua eta gobernuaren jarrera aldaraztea bilatzen du.

Nazio Batuetan honako definizioa: *Cualquier acto [...] destinado a causar la muerte o lesiones corporales graves a un civil o a un no combatiente, cuando el propósito de dicho acto, por su naturaleza o contexto, sea intimidar a una población u obligar a un gobierno o a una organización internacional a realizar una acción o abstenerse de hacerla. (Goi-Mailako taldea, 2004)*

- Nazioarteko terrorismoa eta terrorismo transnazionala
- Terrorismo transnazionala ekintza bortitzak estatu batean baino gehiotan, kideak ere nazionalitate desberdinetakoak.
- Nazioarte terrorismoak nazioarteko botere egitura eta botere banaketa aldatzea du helburu.
- Horretarako eremu geopolitiko desberdinetan eramaten dituzte aurrera euren ekintzak.
- Epe-luzerako helburuak eta epe-ertainekoak osagarriak dira (estatu baten gaineko aldaketa).
- Talde palestinoek israelen aurka egiten dituztenak oinarri nazionalista ez nazioartekoa.
- Gaur egungo nazioarteko talde terroristek islamaren ikuspegi berdintsua konpartitzen dute neosalafismoa.
- Islamaren batasun politikoa bilatzen dute, kalifato berria ezartzea.

→ **Nazioarteko komunitatearen erantzuna:**

- 2001eko atentatuen ondorioz Nazio Batuak terrorismoaren aurkako borrokan inplikatu da.
- Hartutako erabakiak eta ebazpenak atentatu desberdinen ondorioak dira (NY/WDC, Madrid, London, Beslan,...).
- 1373 Ebazpenak (SK-k 2001eko irailaren 28an onartua) NBak ekintza terroristen aurrean duen jarrera zehazten du:
 - ✓ Kartaren VII. Kapituluarekin lotesten du.
 - ✓ Ekintza terroristak nazioarteko bakearen eta segurtasunaren aurkako ekintzak dira.
 - ✓ 1373 Ebazpena nazioarteko arau juridikoa da.
 - ✓ Estatuak derrigorrez bete behar dute.
 - ✓ Terrorismoaren Aurkako Batzordea eratzeko baimena ematen du estatuak ebazpenak jarrai/bete ditzaten.
- Europako Batasunak 2001eko irailak 11ko atentatuen ondorioz:
 - ✓ Terrorismoaren aurkako borroka bi eremutara zabaltzen da: mugaz barnekoa eta mugaz kanpoko.

→ **EBren mugaz barne...**

- ✓ Justiziaren eta Barne Arazoen eremuetako Lankidetzari ekin dio;
- ✓ “Euroordena” edo Atxiloketarako Europar Agindua izeneko tresna juridikoa sortu zuen 2002an.
- Estradizioak errezteko tresna.
- Edozein epailek edota Auzitegik eman dezake.
- Aginte zentralak ez dira sartzen.
- Leporatze bikoitza desagertzen da (delitua izatea bi estatuetan).
- Bateratua, ez da [atxiloketa] eskatzen zaion estatuaren ordenamendu juridikora egokitu behar.
- EBren barnean pertsona baten entregatze epea 13-43 egun, lehen 9 hilabete.

→ **EBren mugaz kanpo...**

- Agencia Europea para la gestión de la cooperación operativa en las fronteras exteriores de los Estados miembros de la Unión Europea (Frontex).
- Europako Batasuneko Estatu kideen kanpo-mugen gaineko lankidetzak operatiboa kudeatzeko Europar Agentzia.
- Varsovian du egoitza.
- Kanpo mugen azterketa bateratua egiten da.
- Estatu mugak kontrolatzeko laguntza (formazioa).
- Itzulera-operazioetarako laguntza teknikoa eta ekonomikoa.
- Delinkuentzia antolatuen kontzeptu estrategikoa landu du (2005tik).

Miren Mujika Telleria

- Ez du terrorismoa soilik hartzen, drogen trafikoa, delitu fiskalak ere.
- Prebentzioa azpimarratzen du.
- Estatu kideen arteko koordinazioa indartu beharra.
- Talde terroristen finantza iturriak moztu eta harien baliabideak blokeatu.
- Irailak 11eko atentatuetatik aurrera estatu kideen arteko lankidetzak indartu egin da oso.

9.Gaia: Segurtasun kolektiboa eta bakearen mantentzea

9.1. Segurtasun kolektiboaren ideia eta saiakera

- Segurtasun kolektiboa bakea mantentzeko sistema da. Estatuak indarraren banakako erabilerari uko egiten diote;
- Estatu horien defentsa sistemaren barnean dauden estatu-taldeak hartzen du. Bakoitzaren segurtasuna guztiena da eta alderantziz
- Segurtasun kolektiboaren lehenengo saialdiak XIX. mendean eman ziren Europan (Vienako Kongresua, 1815) eta ameriketan (Monroe Doktrina, 1823). Saialdi erregionalak izan ziren.
- Lehenengo saialdi unibertsala Nazioen Elkarteak eraman zuen aurrera.
- Ez zuen sistema ondo ezarri, europako gaietan zentratu zen batipat eta erabakiak ez zituzten behar zutenean hartzen (Mantxuria, 1938, Etiopia, 1936);
- II. Mundu Gerraren ostean bigarren saialdiari ekin zioten Nazio Batuen Erakundearen Segurtasun Kontseiluan.
- Potentzien direktorio bezela egituratzen da Segurtasun Kontseilua eta beto-eskubidea segurtasun-balbula modukoa da potentzien interesen defentsarako.
- Segurtasun Kolektiborako sistema martxan jartzen da Gutunaren VI. Kapituluaren hartzaren diren gomendio-xedapenak antzuak direnean.

9.1.1. Segurtasun kontseiluaren egitura:

- Kontseilua
- Batzorde iraunkorrak:
 - Araudia aztertzeko
 - Kide berrien onarpena

→ Terrorismoaren aurkako Batzordea

- Zigorren inguruko Lan-Taldea
- Bakea mantentzeko Operazioak
- Nazioarteko Auzitegiak: Jugoslavia Ohia→Sierra Leona

→ VII Kapitula Bake-mehatxuaren, bake-urratzearen edo eraso-egintzen jardura (39-51 art.)

• **24.1 art.:** Segurtasun Kontseiluak bakea eta nazioarteko segurtasuna mantentzeko ardura du. Kideek Kontseiluari eman diote ardura hori eta kide guztien izenean aritzen da.

• **39. art.:** “Segurtasun Kontseiluak bake mehatxuaren, bake urratzearen edo eraso-egintzen edozein jarduerarik ematen den zehaztuko du eta nazioarteko bakea eta segurtasuna berriro ezartzeko beharrezkoak diren neurriak hartuko ditu 41 eta 42 artikuluen arabera”.

- SK-ak behin-behineko neurriak har ditzake ere egoera larriagotu ez dadin (40. art.). Neurri horiek ez dituzte aldeak kaltetu behar ez eta euren eskubideak, erreklamazioak ezta jarrerak ere.

- Behin-behineko neurriek huts egiten dutenean Segurtasun Kontseiluak aukera bi ditu:

- a. Bake-Neurriak:** harreman ekonomikoen etenaldia —osoa edo alde batekoa—, komunikazioak eta garraioak, harreman diplomatikoa ere (Blokeatze-neurriak) (41. art.);

- b. Indar armatua erabiltzeko baimena:** aire-indarra, ontzi-erasoa eta lurrezkoa nazioarteko bakea eta segurtasuna berezartzeko (42. art.).

- VII. kapituluak progresio mailakatua proposatzen du baina neurriak Kontseiluak hartzen ditu eta organo honen eskumenean daude.

9.2. Bakea mantentzeko operazioak (Peace-keeping)

- Operazio hauek ez dira Kartan aipatzen;
- Oinarri juridikoa 1.1 art.-an: “nazioarteko bakea eta segurtasuna mantentzea” (NBE-aren helburua);
- Gatazkaren izaeraren arabera operazio desberdinak
 - a. Prebentzio edo babes operazioak (VI. Kapitulua).
 - b. Operazio hertsatzaileak (VII. Kapitulua).
- Bien arteko desberdintasun nabariena indarraren erabileran oinarritzen da.

9.2.1. Bake operazioen aitzindariak:

- 1948an Ekialde Hurbilean UNTSO Su-etena begiratzeko
- 1949an India eta Pakistanen arteko Su-etena UNMOGIP.

9.2.2. Lehenengo bake operazioa

- 1956an Suez-eko kanaleko krisian.
- Mandatua: Segurtasun Kontseilua
- Kudeaketa: 1948tik Gai Politiko Berezien Nazio Batuen Bulegoa eta 1992tik Bakea Mantentzeko Operazioen Saila (idazkaritzari lotuta).
- 1948tik guztira 71 misio eraman dira aurrera. Gaur egun 15.

9.2.3. Bake operazioen ezaugarriak:

- Indar militarrek etsaien tartean sartzen dira gatazka zabaldu ez dadin.
- Gatazkan dauden aldeek onartu behar dute tartean jarriko diren indarren sartzea.
- Indarraren erabilera debekatuta dute norberaren defentsarako ezpada.
- Kasko urdinek arma arinak eramaten dituzte soilik.
- Segurtasun Kontseiluaren mandatua beharrezkoa da.
- Helburua erasoak geldiaraztea eta bakea lortzeko baldintzak sortzea.

- Rwandan 1995ean bake operazioa huts egite izan zen ezpaitzuten genozidioa geldiarazi.

9.2.4. Bakearen inposaketa (Peace-enforcement)

- Operazio hertsatzaileak dira (VII. Kapituluak).
- Norberaren defentsarako ez den indarraren erabilera baimenduta egon daiteke
- Ez da beharrezkoa estatuaren baimena bertan sartzeko
- Pertsonen eta taldeen bizitza eta interesak babestea du helburu (Namibia, Cambodia, Bosnia eta Herzegovina, Mozambike,...)
- Barne segurtasuna babestu edo egitura instituzionalak indarberritu (Somalia, El Salvador, Kosovo,...)
- Indar paramilitarrak eta bestelakoak desarmatu (Bosnia eta Herzegovina)
- Eztabaida handia sortu dute tartean sartzen direlako.
- Bakea mantentzeko operazioek huts egite nabariak izan dituzte eta beste arazoak sortu dituzte ere.
- Gatazken konplexutasuna ez da mandatuetan isladatu, anbiguoak izan baitira.
- Sarritan kasko urdinek harien bizitza babestu dute bertako zibilena babestu beharrean. (Sebrenica)
- Suedia, Italia, AEB, Belgika eta Herbehereak armak saldu dizkiete giza eskubideak errespetatzen ez dituzten edo gatazketan dauden estatuei.
- Bakea mantentzeko operazioak izan diren lurraldeetan prostituzioa handitu da, adingabekoekin ere (Kanbodia, Mozambike, Bosnia, Haitin, Sudanen, Kongoko Errepublika Demokratikoan eta Kosovon).
- Operazioak kolonialismo berria direla diote. Mendebaldeko irudizkoak “bakea” interbentzioak justifikatzeko.
- Gatazkek konpondu barik uzten dituztela leporatzen diete.
- Baina gatazka konplexuak eta denboran luzeak dira. Su etenak bideratzeko erabiltzen dira soilik.
- Lan politikoa egiteko beste operazio motak erabiltzen dira.
- Indar armatua arrotza egiten zaizkion gatazketan daude eta kalteak jasaten dituzte (harien familiak ere). Ezagunak dira buru-arazoak, suizidioak eta drogen erabilera.
- Erreakzio arineko indarra krisia gertatu baino lehen egoera gehiago larriagotu ez dakin (Brahimi Txostena).
- Eztabaida handia bake operazioen inguruan.

9.3. Egitura Iraunkorreko Kooperazioa (PESCO)

- Lisboako Tratatuak (2009) segurtasun eta defentsa politikaren arloan egitura iraunkorreko kooperazioa ahalbidetzen du.

Miren Mujika Telleria

- Helburua: Estatuen defentsa-gaitasunak sendotu eta EBren operazio militarren eskura jarri. EBk nazioarteko segurtasunak dituen gaitasunak indartzeko tresna da, europarrak babesteko eta defentsarako gastuen eraginkortasuna hobetzeko.
- Alemania, Austria, Belgika, Bulgaria, Txekia, Txipre, Kroazia, Eslovakia, Eslovenia, Espainia, Estonia, Finlandia, Frantzia, Grezia, Hungaria, Italia, Letonia, Lituania, Luxemburgo, Herbehereak, Polonia, Portugal, Errumania y Suedia.
- Danimarka, Malta, Erresuna Batua.

→ *«PESCO es el resultado del buen trabajo de equipo, del alto nivel de ambición en el compromiso común que ahora tiene que traducirse en proyectos concretos de cooperación, pero también de un proceso inclusivo. Es un ejemplo de como la Unión Europea puede estar al servicio de las prioridades de los Estados Miembros, de como puede ser eficaz y efectiva y de como nuestra integración responde a las prioridades de nuestros ciudadanos –en este caso, la necesidad de tener un enfoque más integrado en seguridad y defensa.» Federica Mogherini, 2017*

→PESCO: Egitura eta gobernantza

- Bi mailatan egituratua:

1. Kontseiluaren maila: norabide politiko orokorraren eta ebaluaketa mekanismoaren arduraduna, hau da, Estatuek konpromisoak betetzen dituzten zehazteko gaitasuna. Erabakiak aho batez hartzen dira eta Pescon parte hartzen duten Estatuek soilik (kide berriak onartzeko edo kanpoan uzteko denean izan ezin, orduan gehiengo kualifikatua).
2. Proiektuen maila: Pescoren eraginkortasuna sustatzen dituen proiektuen arabera neurtuko da. Proiektu bakoitza parte hartzen duten Estatu kideen artean kudeatuko da.

